

noaua

**12 milioi litro,
sagardozeleen zain**

**Miriam Arrillagaren
omenezko pilota jaialdia
antolatu dute Aginagan**

**Xua Gurasoekin Etxera
plataforma: “Xuarekin
batera, Olatz eta Patxi
nahi ditugu etxean”**



“Oso gustura bizi gara Usurbilen”

**Sortzez argentinarra, Daniel Scottek badaki euskaraz
eta liburu bat plazaratu berri du: ‘Bertsopayakopla’**



Argazkia: Ibai Arrieta

OLATZ ETA PATXI, HAR EZAZUE GURE MUXUA

Albiste iruditan

12 milioi litro, sagardozaleen zain

Gure Sagardo Berria! leloa ahoan harturik, Izaro Andres abeslariak 2020ko txotx bolada ireki zuen Astigarragako Alorrenea sagardotegian, XXVII. Sagardo Berriaren Egunaren ospakizunean. Aurretik, sagarrondo berri bat landatu zuen Sagardoetxeko sagastian.

Bertako sagarra nagusi

2019ko uztarekin 12 bat milioi litro sagardo ekoitzi dira Euskal Herrian, 8,5 milioi bertako sagarrarekin. Horietatik 3 milioi litro sagardo Euskal Sagardoa Jatorri Izendapenarekin merkaturatuko dira. Guztira 48 sagardotegik egin dute Euskal Sagardoa izendapenarekin: Gipuzkoako 41ek, Bizkaiko 5ek eta Arabako 2k.

Euskal Sagardoa, %30etik gertu

Euskal Sagardoaren ekoizpena hortaz, hazten doa. Laugarren uzta honetan %30etik gertu ibili da eta orain ahale-



Izaro Andres kantariak eman zion hasiera txotx garaiari. Instituzioetako ordezkariekin batera ageri da argazkian.

gina merkaturatzean jarri behar dela nabarmendu zuen Unai Agirrek: “sagardoa beste modu batean kontsumitzea sustatu behar da eta produktuak duen

kalitateari dagokion moduan saldu behar da”. Horregatik, Euskal Sagardoa ostalaritzan sustatzeko garaian, 2020a estrategikoa izango da.

Laburrean

“Dantza”, Inauteri Festarako mozorroa

Gogoan izan, “Dantza” dugu otsailaren 22an ospatuko den Inauteri Festan mozorrotzeko gaia.

Jaialdiari buruzko xehetasun gehiago hurrengo asteetan eskainiko ditugu aldizkari honetan.

Ikastaro ugari KzGunean

■ Urtarrilak 28, 18:00-20:00 “Zure bidaia planifikatu”.

■ Urtarrilak 30, 16:00-18:00 “WhatsApp. Bat-bateko mezularitza”.

Informazio gehiagorako: 943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net

Tripontzia zozketako sari potoloa, Deustura

60.000 euroko sari nagusia: 8121, Lapurdi seriea (Deustun saldua). 2.000 euroko sariak zenbaki bereko gainerako zazpi serieentzat: 8121 (Deustun saldua).

■ 2. saria: 24.628 (Azpeitian saldua).
■ 3. saria: 17.541 (Aieten saldua).

noqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Itxaso Orbegozo.

Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Inaki Irazusta,

Iban Maritxalar.

Tirada: 2.930 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:

erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

Euskal Herrira!



Luis Aranalde

Ezkontza aurreko prestakuntza

Spainiak Gotzainen Batzarrak “Juntos en camino + Q2” lana aurkeztu du, “ezkongaiantzako prestakuntza eta laguntza ibilbidea”. Ezkontza prestatzeko bi urteko ikastaroa da. Gizon eta emakumeen arteko alde sexualak, ezkongaien arteko samurtasun eskusiboa, pornografia, masturbazioa, kastitatea, desleialtasunari uko egitea jorratzen ditu besteak beste. Orain, Apezpiku bakoitzak erabaki behar du ikastaroa nahitaezkoa den ala ez elizbarruti bakoitzean, eta jakina, elizan ezkondu nahi dutenentzat bakarrik izango da.

Mario Iceta Bilboko Gotzainak aurkeztu du ikastaroa. Familiaren eta Bizitzaren Defentsarako Azpibatzaordeko presidentea ere bada Iceta. Egun, eliza katolikoaren bidez ezkondu aurretik hogei orduko ikastaroa egin behar dute ezkongaiak. Orain bi

urteko ikastaroa egitea proposatzen dute gotzainek. Nahiz eta ikastaro hau egitea ez den derrigorrezkoa izango, zentzugabekeria izango litzatekeela adierazi du Icetak. “Ezkontza prestatzea ezin da 20 ordutan laburbildu. Apaiz izateko zazpi urteko mintegia behar da eta emazte, senar, ama edo guraso izateko 20 ordu bakarrik?”. Ikastaroaren helburuetako bat ezkontza-porrotari aurre egitea dela azaldu du Icetak. Bere esanetan, bikoteen %40a apurtzen da ezkondu eta 5 urtera eta %60a hamabost urtera.

Bi bertsio izan ditu Gotzainen proposamen honek. Lehenbizikoak sekulako polemikak sortu zituen. Prentsako komentarioak oro har ezkorrak eta sarkastikoak izan ziren. Izan ere, zenbait aholku oso bixiak ziren eta nahiko inozoak. Jakina, kapitulu bakoitza pertsona ezberdinari enkargatzen zitzaion eta zazpigarren atala

idatzi zuena oso urrun zegoen nonbait eliza progresista samar baten ikuspegitik. Gaurko kristau bikote normal batek ez dauka zerikusirik atal horretako zenbait gomendioarekin.

Gotzainek behin-betiko onartu duten bertsioa Aita Sainduaren “Amoris laetitia” (maitasunaren poza) dokumentuan edo instrukzioan oinarrituta dago, nahiz eta ez duten aipatzen. Bertan Frantziskok aipatzen du sexualitateari buruzko “hizkuntza berri baten beharra”. Gai honen gainean dokumentu horrek ekarpen handia egiten du. “Sexualitateaz ikuspen baikorra” behar dela dio, “erotismo sanoa” aipatzen du, “plazerrik eta su-garrik gabeko maitasuna ez dela benetakoa” esaten du. Aita Santuak garbi kritikatu du maitasunaren inguruan elizak askotan izan duen ikuspegi ezkorra, zaharkitua eta batzuetan estigmatizatzailea.

Gotzainen dokumentuak

luze samar hitz egiten du pornografiak eragin ditzakeen kalteei buruz: norberekeria sustatzen duela, maitasunari buruz ikuspegi faltsua agertzen dela, emakumea mesprezatzera bultzatzen duela. Komunikabide batzuek barre egin dute elizak pornografiaren kaltegarritasunaz hitz egin duelako. Agian tarte handiegia ematen dio gaiari, baina galgarritasun hori #MeToo mugimendu feministak ere salatzen du. Beraz, kazetari horien jarrera ez da oso koherentea.

Erlazio sexualak eta Ebanjelioa uztartzeko hizkuntza egoki baten bila dabil Eliza.

“Maitasunaren poza” oinarri bezala hartuz, eman du lehen pausoa. Bide egokia hartu du. Lehen zegoenarekin konparatuta, aurrerapauso handia da. Bide horretatik jarraitzeko konpromisoa hartu behar luke Elizak.

Imanol Ubeda

Aritz Gorriti

Luis Aranalde

Itxaso Orbegozo

Arrate tabernak kudeatzaile berria du

Aginagako Arrate Elkarteko taberna zabalik da berriz kudeatzaile berriarekin. Iñigo Egilegorrek irabazi zuen lehiaketa eta urtebeteko kontratua egin zaio, lau urtera arte urtero berritze-

ko aukerarekin. Udalak Udalberri bidez gogorarazi duenez, kudeatzailerik gabe geratu zen taberna 2018ko udan. Lizitazio prozesua abiatu eta inor ez zen aurkeztu. Hilabetera proposa-

men bat jaso eta kontratu txiki bat egitea erabaki zuen Udalak, “hori baitzen legeak ematen zuen aukera bakarra. Hori bukatzean abiatu zuten esleipen prozesua, udazkenean”.

2020ko aurrekontuak, behin betiko onartuak

Tramitazio bidea amaitu ondoren, behin betiko onartu du Ustribilgo Udalak 2020 urterako udal aurrekontua: 12.375.710 euro guztira.

Komikia



TORIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Michelingo Enpresa Batzordea: “Egin diguten eskaintza bidegabea da, ez dugu merezi”

Enpresa Batzordeak deituta, astean behin ordubeteko lanuzteak egingen ari dira Michelinen. Lan hitzarmen berri bat adosteko negoziazio mahaia hamabi aldiz batu da baina bi aldeen planteamenduek oso urruti jarraitzen dute. “Egin diguten eskaintza bidegabea da, ez dugu merezi”, salatu dute langileen ordezkariak.

2015-2018 urteetako jardunean, “Michelinek 200 milioi euro inguruko etekin konstanteak lortu ditu urtero. Guztira, 860 milioi baino gehiago”. Enpresa Batzordeak aditzera eman duenez, “datu hauek publikoak dira, enpresak urtero aurkezten duen txosten ekonomikotik atera dira”. Garai ekonomiko korapilatsuetan, langileak enpresaren beharretara egokitu direla diote. Horregatik, hitzarmen berria negoziatzen ari diren honetan, ulergaitza zaie enpresaren jarrera.

2019ko ekainean hasi zen hitzarmen berri bat adosteko prozesua. Geroztik hona, negoziazio mahaia hamabi aldiz batu da. “Posizioak oso urrun daude”, hala ere. Enpresa Batzordearen esanetan, Michelingo buruek ez dute inolako interesik erakutsi. Datu argigarri bat: lehenengo bost bileretan, Michelinek ez zuen inolako pro-



Lan hitzarmen berri bat adosteko negoziazio mahaia hamabi aldiz batu da. Hala ere, bi aldeen planteamenduek oso urruti jarraitzen dute.

LANGILE BATZORDEA

Planteamendua “arduragabea eta berekoia” dela dio Enpresa Batzordeak, “Michelinek gehiago irabazteko, langileok gutxiago irabaztea bilatzen duelako”

posamenik egin, “ez eta enpresa batzordeak aurkeztutako plataforma aldarrikatzaileari inolako erantzunik eman”. Merkatuen egoera katastrofikoa zela argudiatu zuten nagusiek. Langileen ordezkarien esanetan, aldiz, “deskribapen hori ez da batere egokitzen Michelin Espainiak bizi duen egoerarekin”.

Michelinen eskaintza

Michelinek mahai gainean ipini duen azken eskaintza hau da:

■ Soldaten %2,5eko igoera, lau urteko epean, “inolako bermerik edo berrikuspenik egin gabe”, sindikatuen esanetan.

■ 8 orduko gehikuntza bost talderen lan-sisteman. Gainerako sistemek ez dute igoerarik izango.

Enpresa Batzordearen esanetan, “eskaintza bidegabea da, ez dugu merezi”. Batetik, enpresaren egoera ekonomikoarekin ez datorrelako bat. Bestetik, antzeko negoziazio kolektiboaren errealitatea bestelakoa delako. “2019. urtean

zehar adostutako hitzarmenetan, batz besteko igoera %1,7koa izan da EAEn”. Beste negoziazio kolektiboetan, urte bakarrean %1,7 igoera adostu da. Aldiz, Michelinen, lau urteren buruan lortuko litzateke %2,5eko igoera.

Enpresa Batzordeak “eraso” baten pare ipini du jasotako eskaintza. “Ez du urte zail hauek langilegoak erakutsi duen profesionaltasunarekin eta konpromisoarekin bat egiten”. Planteamendua “arduragabea eta berekoia” dela dio Enpresa Batzordeak: “Michelinek gehiago irabazteko, langileok gutxiago irabaztea bilatzen duelako”.

“Horrela ezinezkoa da zerbait adostea”

Baldintza hauek mahai gainean, “zerbait adostea ezinezkoa” dela dio Enpresa Batzordeak. Egoerari aurre egiteko, lau elkarretaratze egin ziren abenduan langilearen atarian, “produkzioan eragin gabe”. Jarraipen handia izan zuten abenduko deialdiek. “Elkarrizketaren eta negoziazioaren alde apustu egiten ja-

rraituko dugu”, hala diote langileen ordezkariak. “Azken bilera abenduaren 20koa da ordea, eta ez dugu berriro elkartzeko deirik jaso”.

Jarrera honen aurrean, langileek gogortu egin dituzte neurriak. Urtarrilaren 8an, 15ean eta 22an ordu beteko lan geldialdiak egin zituzten.

Gauza bera egingo dute urtarrilaren 29an ere, 14:00etatik 15:00etara.

Otsailean, 8 orduko lanuzteak

Lehen geldialdiak “arrakasta izugarria izan zuen”. Egoerak bere horretan jarraitzen badu, otsailean 8 orduko lanuzteak egingo dituzte. Lehena otsaila-

ren 5ean; bigarrena otsailaren 19an. Urtarrileko ordu berean. “Michelingo zuzendaritzari egoera birplanteatzeko deia egiten diogu”. Enpresa Batzordeak beste bilera bat deitzeko eskatu dio Michelingo zuzendaritzari, “negoziazioarekin jarraitu eta akordio on bat lortu ahal izateko”.


Daniel Scott: “Jainkoak maitasun berezia jarri zuen nire bihotzean Euskal Herriarentzat”

Buenos Airesen jaioa, duela gutxi Usurbilera etorri zen familiarekin batera bizitzera. Pasa den urte amaieran, *Bertsopayakopla* izeneko liburua plazaratu zuen. “Argentinarrak euskaldun berri baten bertso, payada eta koplak” batu ditu bertan. Euskaraz ederki moldatzen denez, halaxe egin dugu elkarrizketa.

NOAUA! “Nire izena Daniel Scott da, argentinarra eta euskaldun berria naiz”. Nondik dator kizua euskararekiko lilura?

Daniel Scott. Nire arbasoen artean denetarik dago. Italiarrak, galiziarak, eskoziarrak... Euskaldunak ere bada, nire birramon bat euskalduna zen. Dena den, euskararekiko interesa ez zitzaidan familiaren aldetik iritsi. Duela 14 bat urte, esperientzia transkultural batean hartu nuen parte. Andoaingo familia baten etxean izan nintzen oporrak igarotzen. 22 urte nituen orduan eta esperientzia ikaragarria izan zen niretzat. Euskaldunen kultura eta hizkuntza ezagutu nituen eta baita euskal paisaiak ere; asko gustatu zitzaizkidan. Egonaldi horren ondoren erabaki nuen hona etortzea bizitzera.

Badago beste arrazoi bat ere. Kristaua naiz eta misiolaria. Jainkoak maitasun berezia ja-



Sortzez argentinarra, Usurbilen bizi da eta euskaraz bikain moldatzen da. *Bertsopayakopla* izeneko liburua plazaratu berri du.

DANIEL SCOTT

Gaztetan, Andoaingo familia baten etxean izan zen oporretan. “Esperientzia ikaragarria izan zen niretzat. Egonaldi horren ondoren erabaki nuen hona etortzea bizitzera”

rri zuen nire bihotzean Euskal Herriarentzat.

Euskaraz oso ondo egiten duzu. Dena den, askotan entzun dugu euskara zaila dela ikasteko. Iritzi hori dutenei zer esango zenieke?

Gaztelaniatik iritsi bazara euskarara, zaila da. Oso ezberdinak direlako bi hizkuntzak. Baina esango nuke hizkuntza guztiek dutela bere zailtasuna. Antzekoak badira, akaso errazagoa da. Katalanarekin eta gaztelaniarekin adibidez, hori gertatzen da.

Usurbilera etorri aurretik Tolosan egon zinen bizitzen, ezta?

Bartzelonan egon nintzen lehenbizi. Teologia ikasi nuen bertan. Emaztea ere bertan ezagutu nuen. Bera ere euskara ikasten ari da orain.

Katalana duzu emaztea?

Ez. Argentinarra da baina Bartzelonan ezagutu nuen, ikasten ari nintzenean. Gure bideak gurutzatu egin zirela esan daiteke. Gero Tolosara joan ginen bizitzera eta han 8 urtez egon ginen. Kristau Etxea elizan egin genuen lan, artzain protestante moduan.

Semeari ere eskainia dago liburua. Hortaz, semea Euskal Herrian jaioa da.

Bai. Euskalduna da. Bost urte ditu eta Aginagako Eskola Txikian ikasten du. Euskalduna da baina Argentinako lantegi batean egin dago, kar, kar, kar.

“Harrera ona egin digute Usurbilen”

Gustura bizi zarete Usurbilen? Orain dela urte eta erdi bizi gara hemen. Herri txikia eta lasaia da. Oso gustura gaude. Harrera ona egin digute. Ez dugu inolako arazorik izan.

“Barruko gauzak partekatzeko atera dut liburua”

NOAUA! Abenduan *Bertsopayakopla* liburua eman zenuen argitara. Zure gogoetak plazaratzeko osatu al duzu liburua?

Daniel Scott. Barruko gauzak partekatzeko atera dut liburua. Gauza asko daude bizitzan eta horregatik ekologiaz, espiritualtasunaz, politikaz, familiaz... mintzo naiz

bertan. Bizitza integrala denez, ona da horretaz guztiaz pentsatzea. Niri asko laguntzen dit idazteak. Terapia modukoa da. Behin liburua kalean dela, zure gogoetak ez dira pribatuak. Publikoak dira eta oso inportantea da edozein pertsonak hori egiteko aukera izatea.

Liburuak azpi-izenburu hau du: “Argentinarrak euskaldun berri baten bertso, payada eta koplak”. Bertsoak, payadak eta koplak, zer dute komunean? Inprobisazioa, ezta?

Ñabardurak badaude. Payadorek gitarrarekin inprobisatzen dute eta beste metrika bat erabiltzen dute. Argentinako Buenos

Aires inguruan eta probintzian aurkitzen dira batez ere.

Koplak aldiz, ardi larruzko kutxa batez lagunduta abesten dituzte. Berezioki Argentinako iparraldean daude koplariak. Haien artean batzuk memoristak dira eta beste batzuk inprobisatu egiten dute. Kontrapuntuan ere aritzen dira.

“Bertsolaritzak garai berrietara egokitzen jakin du”

NOAUA! Bertsolariek hemen duten izena eta garrantzia bera al dute payadalariek eta koplariak Argentinan?

Daniel Scott. Ez dut uste. Hemen dimentsio handiagoa du bertsolaritzak. Batez ere gazteen artean. Bertsozale gazte asko dago hemen eta hori ez da horrela gertatzen Argentinan. Argentinako kulturaren berritzea falta da. Hip hop musika modan dago orain Argentinan. Batzuk oso onak dira eta ezagunak dira gazteen artean.

Hemen berriz, bertsolaritzaren tradizioa oso zaharra da baina garai berrietara egokitzen jakin du.

Beste diziplina artistiko batzuekin uztartzeko ahalegina ere egin dute bertsolariek.

Doinuak ere berritzen dituzte. Hori oso ona da.

Bertso saioak jarraitzen al dituzu?

Txapelketa nagusiak, bereziki. Tolosan bizi ginenean, Alegiako Bertso Eskolara joaten nintzen. Taldekoek inprobisa-



Xalbador bertsolaria gustuko du eta berari buruzko aipamenak jaso ditu “Bertsopayakopla” liburuan.

DANIEL SCOTT

“Hemen bertsolaritzak dimentsio handia du. Gazteen artean batez ere”

tzen zuten; ni ikastera joaten nintzen. Oso ondo pasatzen nuen.

Baduzu harremanik bertsolarien batekin?

Oihana Iguaranekin. Berak eman zidan bertso eskolara joateko kontaktua. Onintza Enbeita ere ezagutu nuen. ETB1eko programa batean elkarrizketatu ninduen.

Eta bertsolarien artean, zein duzu gustukoena?

Xalbador gogoko dut eta nire liburuan aipatzen dut. Bere liburua (*Odolaren mintzoa*) etxean daukat. Bere bertsoak oso sakonak direlako gustatzen zait. Fededuna zen Xalbador, eta Jainkoari buruz asko hitz egiten zuen. Baina ez modu erlijioso batean soilik. Jainkoarekin zuen harremanaz mintzo zen.

“Kristauak gara baina independenteak”

Daniel Scottek Kale Ardia ekoiztetxe kristau independentean egiten du lan. “Fede komunitate alternatibo bat da, ez da katolikoa”, azaldu digu. “Gure sustraia kristaua eta protestantea da, baina gauza zabalago bat sortu nahi dugu”.

NOAUA! Britainia Handiko protestanteen ildokoak al zarete?

Daniel Scott. Ez dugu gure taldea protestante bezala kalifikatu nahi. Eta ez gara egitura batekin identifikatzen. Talde kristau bat gara eta lehengo kristautasunaren sustraietara itzuli nahi dugu.

Kristautasun katolikotik aparte dagoen taldea da zuena.

Kristauak gara baina independenteak. Dena den, harreman ona dugu beste elizekin.

Ospakizunik egiten al duzue?

Hasieran Potxoenean elkartzen ginen baina orain Pauma denda zegoeneko lekalean batzen gara. Talde txikia gara eta oso modu horizontalean funtzionatzen dugu. Elkarrekin batzen gara mahai baten inguruan. Kafetxo bat hartzen dugu eta kristau kantak abesten ditugu. Ez dago predikaziorik. Bibliako pasarteak irakurtzen ditugu eta gero denon artean aztertzen dugu

irakurritakoa. Familia giroko ospakizuna da, oso informala.


Fededunak gara baina ez gara katolizismoaren egiturarekin identifikatzen.

Francisco Aita Santua argentinarra. Ba al zenuen bere berri?

Egia esateko, ez nuen ezagutzen. Hedabideetan ikusi izan dut baina ezin dut iritzirik eman. Lehen inpresioa ez da txarra. Beste Aita Sainduekin alderatuz, aldaketa txiki batzuk egiten ari da. Hori ona da. Baina gauza asko falta dira aldatzeko eta ez dakit egin ahal izango duen. Bere jarrera ona da, hala ere.

Liburua, Laurok dendan salgai

Usurbilen, Laurok liburu denda topatuko duzue Daniel Scotten liburu salgai.



Liburua bi hizkuntzatan idatzita dago, euskaraz eta gaztelaniaz.

2019-2023 Legealdi Plana urtarrilaren 31n aurkeztuko dute

Legealdiko erronka nagusiak aurkezteko prest da Usurbilgo udal-gobernu taldea. 2019-23 urtera arteko Legealdiko Plana diseinatzen aritu dira udazkenean zehar, udal ordezkari politikoak, udal teknikariak eta langileak. Azti-ker ikerguneak bideratu dituen saioetan, “EHBilduren hauteskunde programako neurriak izan dituzte oinarri Legealdiko Plana osatzeko, baina horiek ez ezik, lehendik martxan dauden proiektuek ere jarraipena izango dute legealdi berrian”, aurreratu du udal gobernu taldeak. Emaitza, urtarrilaren 31n jendaurrean aurkeztuko dute, arratsaldeko 18:30ean Sutegiko erakusketa aretoan.

Urritik abendurako lan prozesuaren nondik norakoak eman dituzte ezagutzera. “Lehen-lehenik, galdetegi bat bidali zieten udaleko langile, teknikari eta ordezkari politiko guztiei: denek ekarpenak kontuan hartuta egin zuen lehenengo zirriborroa Azti-kerrek. Gero, langileen arteko lan-saioan, zirriborroaren inguruko ekarpenak jaso zituzten, eta behin



Legealdiko Plana diseinatzen aritu dira udazkenean zehar, udal ordezkari politikoak, udal teknikariak eta langileak.

LEGEALDI OSOKO PLANA

“Urtarrilaren 31n aurkeztuko dute, arratsaldeko 18:30ean Sutegiko erakusketa aretoan”

betiko dokumentua osatu”, zehaztu dute.

Digitalizaziorako bidean

Kanpora, herrira begirako egitasmoak eta udal barrukoak

ere jasotzen ditu Legealdiko Planak. Tartean, erronka nagusizat jotzen dutena bideratzea; administrazio elektronikorako trantsizioa gauzatzea. Horretarako udala bera berrantolatzen hasiak dira. “Hainbat aldaketa eragingo ditu udal-tertxeko espazioari, artxiboari eta herritarren harrera zerbitzuari dagokienez”.

Egunotan Udalak berak eza-gutzera eman duen moduan, jada harrera berregituratu dute, herritarren arreta zerbitzua

hobetu asmoz. Langileen eta herritarren arteko distantzia txikiagotu, harrera zerbitzu zuzenagoa, pertsonalagoa, diskretuagoa bideratu eta herritarren datu babesa bermatzeko aulkiak eta mahaiak jarri dituzte.

Digitalizaziorako trantsizioa egiteko legealdi osoa baliatu asmo dute, lan egiteko moduak eta ohiturak aldatu behar harko baitituzte, beti helburu argi batekin; herritarrei zerbitzu hobeto eta eraginkorrago eskaintzea.

Iazko aurrekontuei lotutako bost obra, abiatzear

2019ko udal aurrekontuei lotuta, Udalak Udalberri aldi-zkari bidez berri eman duenez, guztira milioi bat euroko bost obra esleitu dituzte eta hurrengo asteotan abiatzekoak dituzte lanak. Batetik, Aginagako erriberako Lazera-Eizazpi tarteko herri-bidea txukundu eta euri-urak jasotzeko sistema jarriko du lau asteren bueltan Murgil Eraikuntzak, 58.900 euroren truke.

Gainerako lanak Kalezarren egingo ditu Udalak. Pelai-oe-

nea eraikina etorkizunean kalezartarren udal-ekipamenduan eta Emakumeen Etxean bilakatuko dute. Oraingoz te-latua berrituko du Indenort enpresak (139.000 euro) eta fatxada eraberritzeko esleipen prozesua abiatuko du aurtien Udalak. Pikaola-Ugartondo inguruan beste hiru lan bideratuko ditu Udalak: aipatu eremua urbanizatuko du Campezo enpresak hiru hilabeteren bueltan. 336.800 euro bideratuko dira egitasmo honetara. Pikaola-Murkaiku eremuan,

2,5 metroko bidegorria urbanizatuko du bi hilabeteetan Orsa enpresak, 142.500 eurotan, “euri-urak jasotzeko arekarekin”. Ugartondo-Olarriondo eremua urbanizatuko du Sasoi Eraikuntzak ere bi hilabeteren bueltan, eta 159.000 euroren truke.

Ugarteko aldapa

Lan hauek garai beretsuan egingo direnez, ibilgailuen joan etorrian eragin dezakete. Udala obretako arduradunekin bildu da obra guztiok ahalik

eta ondoen koordinatzeko. Momentuz, Ugarte parean dagoen behin-behineko semaforo zerbitzuak bere horretan jarraituko du. Obren arduradunek Udalari esandakoaren arabera ordea, tarteren batean Ugarteko aldapa itxi behar da. Ordurako bidegorria eta Pelaioeneko te-latuko lanak amaituta egongo direnez, Kalezar eta Kaxkoaren arteko ibilgailuen joan etorria auzotik barrena bideratzea aurre-kusten du Udalak, beti ere epe mugatu baten baitan.



kanpokaldeko
dekorazioa!

URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

2019-2020 Ikasturtea

Matrikula epea zabalik

• **HEZKUNTZA OROKORRA** (Oinarrizko kultur formakuntza: Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, idazketa. Kalkuluan hastapena eta hobekuntza. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionaturtako mugimendu artistikoak...)

• **DBH-ko titulua** (4 hilabeteko ikastaroak)

• **IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHAZ**

• **IKASTURTE AMAIERAKO BIDAIA ATZERRIRA**



BAZKIDEEN TXOKOA

noaua! euskararen aterpe



Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera. 943 360 321 / elkartea@noaua.eus

PLAZAN BAZAN

ESKULANA

HAUXE BAI MAGIA!

Jostailu honexek taumatropo du izena eta paperezko piruleta moduko bat da, bi aldeetan irudi bana dituena. Bizi-bizi biraraziz, bi marrazkiak batu egiten diren irudipena sortuko dugu.



MATERIALA:

- Papera
- Makila bat (adibidez, jateko zotz txinatar bat)
- Arkatza
- Guraizeak
- Margoak
- Zinta itsasgarri zabala
- Kola barran edo bi aldeetatik itsasten zinta



1. Paper zuri batean bi biribil marraztuko ditugu, gutxi gorabehera 11 zentimetrokoak. Eskulan honetan 'ColaCao' potoaren tapa erabili dugu horretarako.

2. Biribilak moztu eta bakoitzean marrazki bana egingo dugu. Jolas honen asmatzaileak, John Ayrton Paris britainiarra, txori bat eta kaiola jarri zituen. Guk arrain bat

eta arrain-ontzia marraztuko ditugu.

3. Hartu arrain-ontzia daukan biribila eta itsatsi atzealdean makilaren punta. Zinta itsasgarri zabala erabili, ahalik eta gogorrena, makila mugimenduan nahi gabe aska ez dadin.

4. Itsatsi beronen gainean arraina, kola edo bi aldeetatik itsasten duen zintaz. Prest duzu taumatropoa.



Hartu ezazu makila eskuetan eta igurtzi ahurrak aurrera eta atzera, bizi-bizi, goiko irudian bezala. Ez al duzu arraina arrain-ontzi barruan ikusten?



txirriStra

TABERNA



- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ZENDOIA

ENEA

taberna

Kale Nagusia 35, Usurbil



BORDATXO

taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5



PLAZAN BAZAN

Egilea: Garbiñe Ubeda

ERREZETA

PALMERAK ETA TXIMELETAK




1. Zabaldu hostorea eta ertzak ebaki, lauki bihurtzeko. Azukrea eta kanela zabaldu. Ertzak ez bota, baliatuko ditugu-eta.



2. Bi ertzak erdirantz tolestu eta azukre-kanelak zabaldu berriz. **3.** Beste horrenbeste egin. **4.** Erditik tolestu. Azkenik, zentimetro inguruko puskak ebaki.

5. Hostoreari ebakitako ertzak tximeletaren gorputza egiteko baliatuko ditugu. Puskak bakoitza hartu, erditik tolestu eta bi ertzak elkarrekin kiribildu.



6. Laberako azpil egokian jarriko ditugu puskak, tarte zabalak utziz. Tximeletak egiteko, makil kiribilduari bi palmera elkartuko dizkiogu, alde banatan. Puskak batzen diren tokian atzimur batzuk egin, elkarri ongi lotu daitezzen. **7.** Labea 185 gradura berotu eta 15 minutuz eduki (beltxak gustatzen bazaizkizu, kolorea hartu arte utzi). Azkenik, elementuak apaindu. Begiak egiteko, egurrezko txotx bat txokolatetan busti eta pintzel gisa erabili dugu.



OSAGAIK: hostorea, azukrea, kanela.
Apaintzeko: txokolate urtua, 'Smarties' gozokiak.
Denbora: guztira 25 minutu (prestatzeko 10 eta labean 15).

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

ETXETRESNEN
KONPONKETAK
eta SALMENTA



MARKA GUZTIAK
azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA
645417665
XABIER Usurbil

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Artzi
Patri^{ENEA}
Iatetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak, ostegunetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

Motxilak sufrimenduz husten, bizipozez betetzeko

Bidegabekeria eta eskubide urraketek bizipoza kentzen ez dutenaren adierazle argia dugu, Sarek eta Xua Gurasoekin Etxera herri ekimenak hilaren 19an bertan, Donostiako Atano pilotalekuan antolatu zuten jaialdia. Usurbilen egin bezala, 3 urte bete zituen Xua Lasagabaster Uranga zorionduz amaitu zuten haur motxiladunak protagonista izan zituen “motxilak gora!” ikuskizuna.

“Espetxe politika hau azalean erarik gordinenean bizi duten motxiladun haurren egoera” plazaratu nahi izan zuten, Sareren esanetan. Guraso bat edo biak espetxean dituzten 18 urtetik beherako 102 haur eta gazte daude egun Euskal Herrian, “astebururo astebururo ehunka kilometro egin behar dituztenak 40 minutuz beraien ama, aita edo gurasoak ikusteko”. Xua ere egoera horretan aurkituko da aurrerrantzean. “Bai aitak eta bai amak espetxealdiaren hiru laurde-



Aurreko igandeko ekitaldian, txiki geratu zen Donostiako Atano pilotalekua.

MUXU BAT XUARI

“Bertsoetako batean Xuari muxu bat helaraztearekin batera, ‘segiko dugu inor ez dadin izan motxilen menpeko’ zioten”

nak beteak dituzte, eta berez, legeari jarraiki Usurbilen edo umearekin egoteko baldintzak badaude, legeak honela onartzen du”, Sarek nabarmendu duenez.

“Motxilak gora!” ikuskizunean, haur eta gazte motxiladunok abesten, erreztatzen...

aritu ziren. Emanaldian zehar husten joan ziren motxila erraldoia bizkar gainean zerman Porrotx izan zuten bide-lagun.

Ikuskizunean zehar, haur motxiladunen gutun bat irakurri zen, Maider Zabalegi abesten aritu zen, dantzari gaztetxo talde batek ere emanaldia eskaini zuen. Xua Gurasoekin Etxera herri ekimenekoek sortutako abestiarekin batera landu zuten koreografia ere plazaratu zuen oriotar talde batek.

“Olatz eta Patxi Xuarekin etxean nahi ditugu”

Xuaren ama Olatz Lasabagas-

teren lankide Hik Hasikoek ere Xua zoriondu eta bizipoza, ongizatea eta dagozkien eskubideak errespetatzea eskatzearekin batera, Porrotxen motxila baikortasunezko globo koloretsuez bete zuten. “Patxi aita eta Olatz ama Xuarekin etxean nahi ditugu. Zorionak Xua! Olatz eta Patxi maite zaituztegu!”, adierazi zieten.

Amaieran, emanaldiko izenburuari (“Motxilak gora”) gorazarre eginez, globo txuriak jaurti zituzten motxilak bailiran. Xuari “zorionak zuri” abestuz eta talde argazki erraldoi bat aterata bukatu zuten Atanoko emanaldia. “Zorionak eta eskerrik asko Atano musikaz, dantzaz, maitasunez eta itxaropenez betetzen lagundu duzuen guztioi!”, adierazi dute Saretik. Iragarri dutenez, “Xuaren eta gainontzeko motxiladun umeen motxilak zamaz arindu eta irriz betetzen jarraituko dugu sufrikario hau amaitu eta Xua eta motxiladun umeak gurasoekin etxeratu arte”.

“Injustizia honen kontra jarraituko dugu borrokan”

Egun gazi-goza izan zen urtarrilaren 19koa Xua eta gurasoentzat. Xua Lasagabaster Urangak 3 urte bete zituen, baina urtebetetze egun gogorra izan zen, espetxealdiaren hiru laurdenak beteta jada kalean behar zuten Olatz eta Patxi gurasoengandik urrundutu zutelako. Xua Gurasoekin Etxera herri plataformak igande iluntzean Eguzkitzako biribilgunean deitutako elkarretaratze berezian oroitu zuten, hirurak batera etxeratzeko egindako ahaleginak “ez du emaitzarik izan, eta gaur, hiru urte bete dituen egunean, Xua bere gurasoengandik banatu egin dute”.

Xua, hortaz, 102 adin txiki-koen “haur motxiladunen” kolektiboko kide izatera igaro da.



Xua Gurasoekin Etxera plataformak elkarretaratze berezia antolatu zuen aurreko igandean.

HAUR MOTXILADUNA

“Aurrerantzean, 1.200 kilometroko joan etorria egin beharko du Xuak, gurasoak bisitatu ahal izateko”

Aurrerantzean, Usurbilen biziko da amona Mari Karmen Anzaren eta 1.200 kilometroko joan etorria egin beharko du Xuak,

gurasoak bisitatu ahal izateko.

Igande iluntzeko elkarretaratzean gainera, azken orduan jaso zuten albiste bat ere plazaratu zuten. “Zaintza epaileak espetxetik egun batzuk ateratzeko baimena ukatu die Olatzi eta Patxiri, nahiz eta, bigarren graduan izanik, horretarako eskubidea izan, baduten”, Xua Gurasoekin Etxera herri plataformako kideek oroitar-

zi zuten. Aipatu baimena ez emateko emandako argudioetako bat nabarmendu zuten. “Baimena ematea une honetan goiztiarra da, ez gomendagarria eta sozialki ulergaitza”, epailearen esanetan.

Irtenbide eske

Hitzok noski haserrea eta desadostasuna eragin zuten. “Guri bai egiten zaigula zaila arrazonomendu hori ulertzea!”. Gaineratu zuten, “egoera krudel honi irtenbidea emateko garaia da, gomendagarria da eta sozialki ulergaitza dena da egun oraindik bere horretan mantentzea. Horregatik injustizia honen kontra borrokatzen jarraituko dugu ume horiek lehenbailehen motxilak gainetik erantzi ditzaten”.

SAGARRONDOTIK SAGARDORA 2020

Kimaketa
praktikak
bertako
sagastietan
egingo dira!

Otsailak 6:

SAGARRONDOEN ETA SAGAR BASATJETATIK SORTUTAKO
LANDAREEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK. NOLA SORTU
LANDARE OSASUNTSU BAT Juan Gamio (SAIOA: 18:00tan)

Otsailak 15:

SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA, ETA ONGARRIKETA.
Aitor Etxeandia

Martxoak 7:

FRUITU ARBOLEN UDABERRIKO EDO ZOTZEKO TXERTAKETA.
Josu Osa

Martxoak 21:

SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA, GAIXOTASUNAK ETA TRATAMENDUAK.
Aitor Etxeandia

Apirilak 25:

ILARGIA ETA EGUTEGI BIODINAMIKOA
Xabier Akizu

Maiatzak 9:

GARBITASUNA SAGARDOAREN KALITATEAREN LAGUN.
SAGARDOA EGURREZKO ONTZIETAN. SAGARDOAREN HISTORIA
BAT, ZER IKASTEKO?. Egoitz Zapiain eta Jakoba Errekondo

Ekainak 6:

SAGASTIEN UDAKO KIMAKETA, GAITZAK ETA IZURRITEAK.
Aitor Etxeandia

Uztailak 11:

FRUITU ARBOLEN UDAKO EDO BEGIKO TXERTAKETA.
Josu Osa

Irailak 5:

SAGARRAREN HELDUTASUN ANALISIAK. ETXEAN SAGARDOA
EGITEKO HASTAPENAK. Aitor Etxeandia eta Egoitz Zapiain

Irailak 19:

ETORKIZUNEKO SAGASTIAREN DISEINUA; BILTZEKO MAKINARIA,
BARIETATEA, MENTU-OINAK, SAGASTIEN FORMATOAK. Aitor Etxeandia

Urriak 17:

SAGARGINTZA ETA SAGARDOGINTZA EKOLOGIKOA. BETEBEHAR
TEKNIKO-ADMINISTRATIBOAK. Enrique Dapena. Eneek.

'Ikastaroen egunak aldatuak izan daitezke, eguraldia edo irakaslearen eskakizunagatik'



IKASTAROEN ORDUTEGIA: 9.00-13.00 Potxoenea (Usurbil)

Ikastaro osoaren prezioa: 99€ (Alkartasuna Kooperatibako bazkideek DOAN)
Egun solteetan izena ematea ere badago; jarri Alkartasuna Kooperatibarekin harremanetan.

IZEN EMATEA: 943 36 11 14 alkartasuna@usurbil.com edo
On line: <https://www.alkartasuna.eus/euskara/produktuak/ikastaroak>

Sagardoaren
Unibertsitatea



Duintasunez bizitzeko greba orokorra deitu dute urtarrilaren 30erako

Greba orokor baten atarian da Euskal Herria, eta baita noski Usurbil. Lan, pensio eta bizitza duinaren aldeko protesta eguna deitu du urtarrilaren 30erako Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartan biltzen diren eremu ezberdinetako eragile anitzek.

Prestaketa lanak eskualde eta herrira egituratzen ari dira asteotan; Usurbilen ere lanean ari da urte amaieran osatu zen Greba Batzordea. Asteazken honetarako zuen iragarria azken bilera irekia, hilaren 30eko “azken zertzeladak itxi eta egunari begirako mobilizazioak lotuta uzteko”. Lau bilera irekiotan, herritar nahiz talde orok parte hartzeko aukera izan du. Horixe zen helburua gainera; “beharrezkoa ikusten genuen Usurbilgo eragile sindikal eta sozial ezberdinak biltzea, herrian eragin ahal izateko”.

Antolatzeko behar horretatik sortu zuten aipatu bilgunea. Batzorde jendetsua izatea baino kolektibo, eragile anitz ordezkatuak izango ziren taldea osatzea zen helburua, eta atxikimendu ugari batu dituzte: enpresetako langileen ordezkariak, udaleko eta ikastolako langileena, mugimendu feministarena, pentsiodunena, gazte asanbladena, Ernai edota merkatarien elkartearena... “Karta Sozialak barnebiltzen dituen



ELA eta LAB sindikatuek eskualdeko agerraldia egin zuten asteartean Hernanin. Bertan esandakoaren arabera, “eskualdeko 102 enpresa batzordek greba orokorrarekin bat egin dute”.

GREBA BATZORDEA

“Hemen jokoan ez dago eragile bakoitzaren aldarrikapena, guztionak baizik”

eragile gehienetara heldu da baita Usurbil eta greba haiena egin dute”.

Guztion oinarrizko eskubideak betearazteko

Grebarako deialdia egin duen Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak biltzen dituen eragile anitzen isla argia da baita, herriz herri sustatu den eragileen parte hartzea. Grebako deitzaileen, eskubidesozia-

lenkarta.com atarian klikatzen baduzue, greba honetara heltzeko prozesuaren berri jasoko duzue. “Eskubideen gainberrera etengabearen” aurrean, egoera errotik aldatu eta Euskal Herrian aldaketa sozial eta politikoa eragingo zuen alternatiba bat sustatzeko 2013-14an eztabaida prozesu bat burutu zuten hamarnaka eragile sozial (mugimendu feminista, ekologista, pentsiodunenak...) eta sindikalek. Politiken erdigunean herritarrak, eta erabakitze gunea Euskal Herrian bertan kokatu zuen prozesu horretan, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta adostu eta idatzi zuten.

Bertan jasoa dagoen eskubi-

deen zerrendak betetzeke jarraitu dute urteotan. Usurbilgo greba batzordeari aipagarriak iruditzen zaizkion “olatu sektorialak handitzen joan dira”. Mugimendu feminista edo pentsiodunen mobilizazioak, lan sektore ezberdinena... Oinarritzko hainbat eskubide urratzen direla ikusita, esan beharrik ez da, grebarako arrazoiak ere anitzak direla deitzaileen esanetan. “Hemen jokoan ez dago eragile bakoitzaren aldarrikapena, guztionak baizik. Denok gaude bizi eredu duin baten alde eta pertsonen egokitutako politiken aldeko Euskal Herri baten alde borrokan”, Usurbilgo greba batzordetik aditzera eman dutenez.

Duintasunez bizitzeko borroka bateratua

Hamarnaka eragile guztion aldarriak bildu eta plazaratuko dira hilaren 30ean. “Bakoitzak bere aldetik borrokan segitzeak ez zuen zentzurik. Ikusten zen, komunak ditugun borroka eta aldarrikapen guztiak batuko zituen greba eta mugimendu bat behar zela”. Horregatik, norbe-

rari eragiten dioten eskubide urraketetatik haratago doazen eskubideen alde borrokatzera deitzen dute, “herritarrak duintasunez biziko diren herri bat nahi badugu”.

Hamaika arrazoi eta gehiago dago grebarako honenbestez, batzordearen esanetan. Argi

diote, hau ez da lan greba soil bat, “greba orokorra da zentzu guztietan. Zaintza eta kontsumo greba baita...”. Greba eraikitzailea izatea nahi dute, “ereduen talka eta euskal herritarrok zer nolako bizi eredu eta gizartea nahi dugun agerian jarriko duena”.

Denok gaude deituak grebara; ikasle, langabe, langile, pentsiodun... Bereziki azpimarratu nahi dute, 24 orduko lan uzte honetan “herrietako merkatariek eta autonomoen parte hartzeak izango duen garrantzia, azken urteetan jipoituene-tako batzuk izan baitira”.

Greba batzordea: “Goazen galdutako eskubideak berreskuratuzera”

Krisialdia deitu eta us-
tez gaudituzat eman
den horretan egindako
lan eta pentsioen erreformak
“izugarritzat” jotzen ditu gre-
ba batzordeak eta haren on-
dorioak oraindik pairatzen
ari dela gizartea. Eskubideak
urratzen aritu direnen aldetik
etorri da greba batzordearen-
tzat, ate joka dugun 24 orduko
lan uzterako deialdiari legiti-
mitatea kentzeko azken asteo-
tako saiakerak. “Egoera aldatu
nahi ez dutenen aldetik etorri
da, egoera hau batzuentzat
oso eroso baita”. Irabaziak
gehitzeko langileen soldatak
murriztu dituztenengatik ari
dira, edota pentsio publikoen-
tzat dirurik ez dagoela diotenei
buruz. “Dirua egon badago,
kontua da nora bideratzen du-
ten”, greba batzordearen esa-
netan.

Egoera honen aurrean,
gonbita argia luzatzen dute,
“goazen galdutako eskubideak
berreskuratuzera”. Galdutako
eskubideen eta oraindik berm-
matzen ez direnen alde eta



Greba batzordearen esanetan, “dirua egon badago, kontua da nora bideratzen duten”.

GREBA BATZORDEA

**Galdutako
eskubideen alde
eta prekarietatearen
aurka greba egitera
deitzen gaituzte**

“bizi prekarietatearen aurka”
greba egitera deitzen gaituzte.

Eredua aldatzeko abiapuntua

Halere, ez dute, pentsiodunen,
lan baldintzen eta beste alda-

rrikapen anitzen plazaratze
hutsera mugatu nahi. Alda-
rriok lortzeko borrokatzearekin
batera, “herritarren kontzien-
tzia piztea da helburua”. Argi
izatea, pentsiodunen arazoak
denonak direla, gazteenak be-
zala, eta haien alde borrokan
segi beharko dela greba egu-
naren biharamunetik aurrera
ere. “Ez da geratu nahi borroka
egun batean. Kaleak bete nahi
dira baina irudi eraikitzaile
hori eman nahi zaio baita. Gre-
ba egunetik haratago goazen

zerbait eraikitzen hastera”.

Inflexio puntu edo abiapun-
tu gisa ikusten du aipatu herri-
tarren batzordeak, urtarrilaren
30eko greba orokorra. Herritik
bertatik eragiteko aukera ba-
dagoela gogorarazten du. “Al-
daketa herritik hasten delako,
Usurbilen badira benetako bal-
dintzak eredia aldatzen hasi
eta aldarrikapen hauek guztiak
gure egunerokoan bideratzen
hasteko”. Norabide argi ba-
tean, “guztiok hobeto bizi ahal
izateko”.

Grebaren ezaugarri nagusiak

- Grebaren izaera: orokorra, 24 ordukoa.
- Greba eguna: urtarrilaren 30a, osteguna.
- Ikasleen greba izango da, langileena, langabetuena, pentsiodunena.... Baita zain-
tza (zaintza lanak kolektibi-
zatzeko ekimenak sustatze-
ko deia) eta kontsumo greba
ere; ez erosi eta ez kontsu-
mitzeko deia egin da greba
egunerako.
- Greba orokorreko deitzai-
leak: Euskal Herriko Eskubi-
de Sozialen Kartan bilduak
dauden ehunetik gora eragile
sindikala eta sozial.

Grebaren aldarri nagusiak

- Azken hamarkadako lan erre-
formak eta pentsio murrizketak
bertan behera uztea, lan es-
kubideen murrizketak atzera
botatzea.
- 1.080 euroko gutxieneko
pentsioa eta 1.200 euroko gu-
txienerako soldata.
- Pentsioei KPI pareko igoera
aplikatzea gutxienez, kalku-
luetarako 15 urte hartzea
kontuan, jasangarritasun-fak-
torea kentzea eta pentsioen
eros-ahalmena bermatzea.
- Erretiroa 65 urterekin (au-
rreratua 61 urterekin).
- 35 orduko lan astea, solda-

tak murriztu gabe.

- Gizon eta emakumeen arteko
soldata- eta pentsio-arrakalak
amaitzea.
- Kontratazioetan diskrimi-
naziorik ez eta prekariza-
zio-formula oro kentzea.
- Etxeko eta zaintza lanak
duindu eta gainerako lane-
tako eskubide berberak ai-
tortzea.
- Lan harremanetarako eta
babes sozialerako esparru
propioa.
- Eskubide sozialen bermea.

Informazio gehiago:

eskubidesozialenkarta.com

Mobilizazioen behin behineko egitaraua

Urtarrilak 23, 28

- 10:30 Greba orokorra presta-
tzeko “gazte kedadak”.
- Deitzailea: Ernai Usurbil.

Urtarrilak 30, osteguna

Greba orokorra

- 11:00 Pentsiodunek deitu-
tako elkarretaratzea udaletxe
atarian.
- 12:00 Gipuzkoa mailako ma-
nifestazioa Donostiako Artzai
Onaren Katedraletik.
- 19:00 Eskualde mailako ma-
nifestazioa Hernanin.
- Oharra: behin behineko deial-
dien egitaraua. Zehaztasun ge-
hiago egunotan noaua.eus ata-
rian eta hurrengo aldizkarian.

Danbor hots artean harrera egin zaie neguko ospakizunei

Negu giroak ez ditu uxatzen tradizio luze-ko ospakizunak; eta ohi bezala danbor hots artean egin diete harrera urte garai honetako jai giroko ekitaldiei. Aurten astelehenez egokitu den San Sebastian Egunari aurre hartuz, danborrada saioekin borobildu zuten joan den astea Zubietako Eskolak eta Udarregi Ikastolak. Aginagako Eskolak aste hasieran eskaini zuten danborrada saioa.

Ospakizun gehiago ate joka

Ospakizun gehiago izango dituzte ikastetxeek asteotan.

■ Otsailak 4, asteartea: Santa Ageda bezperako ospakizunak ikastetxeetan.

■ Otsailak 21, ostirala: Inauterietako festak ikastetxeetan.

Larunbat honetan, ate irekien eguna Udarregi ikastolan

Ikastetxeak 2020-21 ikasturtera begira dira. Urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra zabalik izango dute matrikulazio epea. Udarregi Ikastolaren kasuan, Ate Irekien Eguna antolatu dute larunbaterako (hilak 25), 10:30ean eraikin berriko



Udarregi ikastolako ikasleak Agerialdeko patioan aritu ziren aurreko ostiralean.

MATRIKULAZIO KANPAINA

**Urtarrilaren 27tik
otsailaren 7ra zabalik
izango da ikastetxeetako
matrikulazio epea**

jangelan. “Bertan, ikastolaren ezaugarriak eta funtzionamendua azalduko dira eta instalazioetan zehar ibiliko gara, ikastola ezagutzeko asmoz. Zatoz gure ikastola ezagutzera!”, luzatu dute gonbita Uda-

rregitik.

Matrikulazioa Udarregin

Matrikulazioa bideratzeko, aurrez hitzordua eskatu behar da Udarregi ikastolan, 943 361 216 telefono zenbakira deituta.

Aginagan eta Zubietan ere, matrikulazio epea zabalik

Aginagako Eskolarekin hartuemanetan jartzeko 943 372 044 telefono zenbakira deitu, eta Zubietako Eskola deitzeko 943 372 931 zenbakira.

“Gatazka: eraldaketarako aukera” tailerra antolatu du Hitz-Aho guraso elkarteak

Hitz-Ahok gurasoei zuzendutako tailer bat antolatu du, Arremanitz eta Usurbilgo Udalarekin elkarlanean. “Tratu onez ari garenean, badirudi momentu gatazkatsuek ez daukatela lekurik eta tentsio uneak desagertzen direla. Baina ez da horrela”, dio Hitz-Ahok. “Pertsonon arteko harremanetan gatazkak ematen dira, saihestezina da. Familian, helduen eta haur nahiz nerabeen artean ere ematen dira, eta hauei aurre egiteko baliabide falta izaten da batzuetan”. Horixe da, beraz, tailerra antolatzeko arrazoi nagusia.

Familiei zuzendua

Gatazkari beste begirada batetik heldu nahi zaio, eta eraldaketarako gako batzuk eman. Familiei zuzenduriko tailerra Ikastolaren eraikin gorrian egingo da.

Tailerraren xehetasunak

- Ikastola gorrian.
- Otsailaren 6an osteguna.
- Arratsaldeko 17:00etan.

Zubieta



Zubietako Eskola Txikiko kideek frontoian eskaini zituzten San Sebastian eguneko kantak.

Aginaga



Aginagako Eskolako ikasleak San Sebastian egunez aritu ziren danborra jotzen. Ludotekan guraso eta senide ugari batu ziren.



Ugaitz Agirre Zapirain

Jonjon katu esataria da. Pagotxa irradian, 12 pm eta 13 pm bitartean, Baina izeneko magazina gidatzen du, eta albo batera utzirik eskuartean dutena, denetariko entzuleak adi-adi biltzen ditu uhinen antipodetan; batzuk, kuriositatearen harra asetze aldera, besteak, morboaren antsiaz.

Behin “Agur eta egun miautsua izan dezazuela” esanda, etxera joaten da biharamuneko saioa prestatzera.

Edozein une izanik ere aproposa material freskoa biltzeko, ilunabarretik hasi eta gauaren tripak isildu arterakoa du atseginen.

Bere furgonetan erronda hasi du uhin guztiak grabatzen dituen tramankulua piztuta. Mikelek eztabaida sutsua izan omen du pin-ponak komunikabideetan duen ikusgarritan eza salatuz. Miren gogoarekin eta sabaiari begira utzi du lotan den mutilak. Mertzek bizipoz guztia agertzen du betiko aurpegi zargaldua daramaten gizonezkoei inoiz ohiturak aldatzea planteatu duten galdetzean. Xabier Japoniara oporretara doanez, wari eta moushiwake arimatsen artean dauden barkamena eskatzeko hamaika forma ikasi ditu. Iratik munduko txoko guztiak ikusi dituenaren apologia egiten du. Eñaut

Bainatarrak



“Behin Agur eta egun miautsua izan dezazuela esanda, Jonjon katu etxera joaten da biharamuneko saioa prestatzera”.

UGAITZ AGIRRE ZAPIRAIN

“Edozein une izanik ere aproposa material freskoa biltzeko, Jonjon katuak ilunabarretik hasi eta gauaren tripak isildu arterakoa du atseginen”

izan da posta zerbitzuaren bidez droga trafikoa aritzea leporatuta atxilotu dutena. Iratxek, bizitzeko tarterik hartu gabe, Faktoria auzolanean eta auzolanerako nola garatu diseinatzen daramatza gauak eta egunak. Julenek zortzi zifra saria irabazi du. Maitanek gazteriak pentsiodunekin batera borrokatu behar duela dioen bideo bat elkarbanatu du. Iñakik benetako ezker ideologiaren aldarria Kapitala aireratuz egiten du manifa bakoitzaren bezperan. Ekialdeko gatazken

tragediak hunkidura handiz kontatzen ditu Karlosek “Mugaz gaindi” izeneko blogean. Eneko kexu da mundu globalizatuan bizi duen kontrol absurdoagatik. Ikerrek bere gailur denen zerrenda amaigabea egin die lagunei. Amaiak norbere burua maitatzearen eta onartzearen inguruko mezu kursiak goizero bidaltzen dizkie lagunei. Imanolek ez erretzaile izatearen onurak edozein elkarrizketetan txertatzen ditu.

Baina gizonezkoen futbolari espazioa kendu, eta etetete, geldi txo! Baina dardara luze baten hasperenak esnatu du, eta: “lasai gizona, ez da izan ametsa besterik”. Baina intentzio zipitzik ez, eta gosaritarako ardoa gailetekin zerbitzatzeko die. Baina aurreko batean bi turista asiarrak begirada hutsarekin mespretxatu zituen bere egunerokoa nahasi zutenaren aitzakian. Baina hotel eta toki

turistikoez gain, leku gehiago ez ditu ezagutzen. Baina Eñaut dela zabaldu duena poliziarekin konpintxatutako ofizioko beste bat izan da. Baina betiko lau katu beltzak elkartuko dira utopia aurrera eramateko. Baina tragaperrasean ibiltzearen kausa den patriketan daraman galerak laukoizten du zenbakia. Baina txirrisklasa bere limoi azal eta izotzarekin eskutan, urrunegi ikusten du bere pentsioagatik borrokatzeko eguna. Baina lo geratu da enegarren aldiz lehen orrialdea irakurtzen hasitakoan. Baina enpatiak badu mugarik: bere konforta susmagarriki mugitzen hastean. Baina egunean zehar egiten duen guztiaren berri bitan pentsatu gabe ematen du sarean. Baina gailur horiei buruz dakien guztia aspaldi irakurritako liburu ilustratu baten bidez daki. Baina ispiluen aurrean gorroto eta nazka keinuak besterik ez ditu irudikatzen. Baina hamar urtez inguruko denak erretzera bultzatzen zituena izan zen. Tramankulua itzaltzearekin, erronda amaitutzat jo du.

Biharamunean, hain berea duen esaldiarekin eman dio hasiera saioari:

“Etxekoek erakutsi zigiten egia denaren aurretik behar zela, baina zehaztu gabe ehunekoa. Zer ginateke, bestela, kontraesanik gabe?”

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Idoia Torregarai Martija

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITZAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

“Bi urte nituenetik Aginagako frontoian eman ditut eguneko ordu gehienak”

Bada urte eta erdi Aitor Aranguren aginagarra esku pilotan modu profesionalean ari denetik. Lekua egin du pilotari handien artean, eta larunbatean Aginagan bertan aukera izango du herritarren aurrean bere maila erakusteko. NOAUA!rekin hitz egin du azken orduko xehetasunak biltzeko.

NOAUA! Profesional mailan bazabiltza ere, Aginagako frontoian eman zenituen lehen urratsak pilotari moduan. Berezia izango al da larunbateko partida?

Aitor Aranguren: Txikitatik beti ibili izan naiz Aginagan, eskolan ere bertan ibili nintzen, eta nola ez, frontoian esku pilotan. Bi urte nituenetik frontoian eman ditut eguneko ordu gehienak, eta oso berezia izango da. Profesional mailan behin bakarrik jokatu da Aginagako frontoian; zabaldu zutenean. Oso polita izango dela iruditzen zait.

Etxean aritzeagatik urduri zaudede?

Ez, oraindik ez. Eguna iristean agian bai, baina ikusiko dugu.

Miriami omenaldia egingo dionte larunbatean, baina zu ere protagonista izango zara. Biok batera hasi al zineten pilotan?

Lau bat izaten ginen Aginagan egunero pilotan aritzen ginenak, Miriam tarteko. Pilotan eta erraketan aritzen ginen batik bat. 12 urterekin Miriamek esku pilota utzi egin behar izan zuen, eta hortik aurrera ez dugu gehiago batera jokatu. Garai politikak izan ziren, oroitzen gogoak ditut.

Zein oroitzapen dituzu haurrak zinetela pilotan ibiltzen zineten garaikoak?

Kopa batzuk irabazi genituen



“Txikitik, mutilen aurka aritzen ginen Miriam eta biok”. Aitor Arangurenek adierazi digunez, “kopa batzuk irabazi genituen elkarrekin”.

AITOR ARANGUREN

“Profesional mailan behin bakarrik jokatu da Aginagako frontoian; zabaldu zutenean. Larunbatekoa oso polita izango dela iruditzen zait”

batera nahiko gaztetxoak gine-la. Mutilen aurka aritzen ginen; Miriam eta biok bi mutilen aurka. Ederki ibiltzen ginen, Miriamek ez zuen mutilen aurka aritzeko inolako arazorik izaten, indar nahikoa bazuen eta gogoa ere bai. Adin batetik aurrera, bai egia da antzematen dela aldea indar aldetik, baina bitartean gainontzeko guztiak bezala aritzen ginen.

Azken aldian, pilotaleku handietan jokatu dituzu partidak, eta entrenatu ere ez duzu edonon egiten. Ahaztuta al daukazu Aginagako frontoia?

Bada denbora pixka bat frontoira joaten ez naizela. Ez naiz aspaldi ibili. Beasainera joaten naiz egunero entrenatzera, eta Aginagako frontoia alde batera utzita daukat.

Peña II-rekin batera, Arteaga II eta Urretabizkaia II-ren aurka arituko zara larunbatean

etxean. Aski ezagunak izango dituzu denak jada, ezta?

Txapelketan gu oso ongi kokatuta gaude, 7 partida irabazi ditugu eta bakarra galdu. Saiklatuta gaude jada, baina gure aurkariak irabazteko premia dute.

Herritarren aurrean partida irabaziko al duzu?

Saiatu egingo gara behintzat etxean irabazten. Miriamek jendea hurbilduko du frontoira eta nire lagunak ere animatzenkoak dira. Giroa egongo dela iruditzen zait.

Urtarrilak 25 larunbata, Aginagako frontoian

■ Ordua: 18:00etan.

■ Tokia: Aginagako Ariztitxo frontoia.

■ Sarrerak Bordatxo eta Arrate tabernetan salgai. Sarean, fronton.com web orrialdean. Egunean bertan bestela, takilan.

16 urtetik gora: 10 euro.

10-15 urte: 5 euro.

0-9 urte: doan.

■ Herri omenaldia Miriami.

Patri Espinar-Miriam Arrillaga Eneritz Arrieta-Maidier Mendizabal

■ Binakako promozio txapelketa: Arteaga II-Urretabizkaia II

Peña II-Aranguren

Igande honetan, Irisasi BTT Hotzak Akabatzen proba

550 izen emateetara helduak ziren aste hasierarako, eta 600 inskripzio bildutakoan apuntatzeko aukera ixtea erabaki du urtarrilaren 26an ospatuko den Irisasi BTT Hotzak probaren antolakuntzak. Kopuru horretara iritsi artean, ostiral gaueko 22:00ak arte kirolprobak. com atarian eman ahalko da izena. Edo igande goizean frontoian, 8:45ak arte.

Hilaren 26an, goizeko 9:00etan abiatuko dira parte hartzaileak. Bi ibilbide izango dira aukeran; motza, 21,15 kilometrokoa, 586 metroko desnibelekoa. Ibilbide luzea bestetik, 33,68 kilometrokoa, 1.143 metroko desnibelarekin. “Motzean du oinarria baina lau luzapen izango ditu. Norberak aukeratu behar du zein egin, kilometro, aldapa, zailtasun eta neke gehiago pilotzeko...”, antolakuntzaren esanetan.

Dortsalak probaren bezperan, larunbat arratsalde 17:00-19:00 artean jaso ahalko dira Sutegin. Baita igande goizean ere, 8:45ak baino lehen, “eta mailota zenbait kasutan”, antolakuntzak ohar-tarazi duenez.

Txosna Batzordea, izena hautatzear

Abendu bukaeran, herriko zenbait tabernetan jarritako kaxetan ekarpenak egiteko aukera izan zen. Hortik lau hautatu eta Twitterren duten @usurbilgotxosna kontuan, gustukoena aukeratu daiteke. Hemen lehian diren izenak eta bakoitza jasotzen ari den babesa: Zertzeta (%3,4), Ziztada (%31), Goiztiri (%6,9), Xauxar (%58,6). Laster plazaratuko du Txosna Batzordeak, behin betiko izena.

Miriam Arrillaga: “Ohore handia da Aginagan jokatzeko aukera izatea”

Omenaldia egingo dio Aginagako herriak Miriam Arrillaga pilotariari larunbat honetan. Duela hilabete pasatxo irabazi zuen Emakume Master Cupeko finala, eta herriak zoriondu egingo du pilotari gaztea. Aginagako frontoian eman zituen lehen urratsak Aitor Aranguren pilotariarekin batera. Txikitako oroitzapenez mintzatu da NOAUA!rekin.

NOAUA! Master Cupeko finala irabazi zenuen abenduan, eta zure jaioterrian omenaldia egingo dizute. Nola sentiarazten zaitu esker oneko jarrera horrek?

Miriam Arrillaga: Nahiko hunkituta nago egia esan Aginagak horrelako jaialdi bat antolatu eta, niri omenaldia egiteagatik. Final bat irabazi dut, eta hori Aginagako herriarentzat garrantzitsua izatea oso pozgarria da niretzat.

Emakume pilotari ezagunen aurrean lekua egin duzu. Aginagako frontoian eman zenuen lehen urratsak pilotari moduan.

Bai, txiki-txikitatik Aginagan ibili izan naiz. Nahiz eta orain Zubietan bizi, beti esan izan dut Aginagako naizela eta nire pilotarako zaletasuna ere bertan sortu zen. Aginagak merezi du nik bertakoa naizela esatea.

Larunbatean egingo dizuten herri omenaldian Aitor Aran-



Zubietarren omenaldia jaso zuen lehenbizi. Aginagakoena larunbat honetan jasoko du. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da pilota jaialdia.

MIRIAM ARRILLAGA

“Neska izanda ere, beti mutilen aurka jokatzeko partidak eta Aitor Aranguren, txikitaren ere, oso ona zen”

gurenek ere jokatu du. Biok batera hasi al zineten pilotan?

Aitor eta biok beti ibili izan gara batera. Orain gure bideak banandu egin dira, baina oso polita da herrian biok jokatzeko aukera izatea. Txiki-txikitatik pilotan eta eskolan batera ibili gara, eta larunbateko pilota jaialdi horrek berriz ere lotu egingo gaitu nolabait.

Zein oroitzapen dituzu haurrak zinetela pilotan ibiltzen zineten garaioak?

Nik neska izanda beti mutilen aurka jokatzeko nituen partidak, eta Aitor oso ona zen

txikitaren ere. Askotan joaten nintzen Aitorrekin partidetak eta sarri esaten zidaten: “ahí viene la chica”. Anekdotak polit asko ditut egia esan, eta oso gustora jokatzeko nuen berarekin. Bikotean bat mutila eta bestea neska izatea oso ederra zen.

NOAUA! Azken aldian, pilotaleku handietan jokatu dituzu txapelketak. Ahaztuta al daukazu Aginagako frontoia?

Miriam Arrillaga: Aginagako frontoia berezia da. Lehen urratsak bertan eman nituen, baina orain bertan denbora gehiago ematen dut parrandan pilotan jokatzeko baino [kar kar kar]. Gustatzen zait oraindik ere bertan jokatzeko. Zubietan bizita, ordea, bertako frontoian aritzen naiz gehiago, baina Aginagara ere hurbiltzen naiz noizean behin. Egia esan, ohore handia da niretzat han aritzeko aukera izatea.

Yoko Garbiko txapeldunordeak

Euskal Herriko Txapelketako finala jokatu zuen Zubietak asburuan. Azken emaitza, 30-41 izan zen. Zubietan ordezkatu zuten Ander Iruretagoienak eta Antton Arrillagak txapeldunorde amaitu zuten. Zorionak!



Futbol partidak

Urtarrilak 18, larunbata

- 9:30 Alebinen arteko partida.
- 10:30 Infantilak: Udarregi Usurbil FT B-Ostadar SKT B
- 12:00 Kadete neskek: Usurbil F.T.-Euskalduna
- 16:00 Jubenilak: Usurbil F.T.-Oartzun KE

Oiardo Kiroldegian:

- 10:30 Areto Futbola Oiardo Kiroldegian: Usurbil F.T.-Arizmendi Eskoriatza

Eskubalo partidak

Urtarrilak 25, larunbata

Eskola Kirola

- 9:15 Alebinak: Eskubalo Topaketa.
- 13:00 Infantil neskek, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A Usurbil-Aiala B ZKE

Usurbil K.E.

- 11:45 Kadete mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Usurbil K.E.-La Salle Legazpi
- 16:00 Kadete mutilak, Euskadiko Txapelketa: Usurbil K.E.-Tolosa C.F. Eskubaloia
- 17:45 Jubenil mutilak, Euskadiko Txapelketa: Usurbil K.E.-Tolosa C.F. Eskubaloia
- 19:30 Senior neskek, Euskadiko Txapelketa: Urbil Usurbil K.E.-Kukuluga Etxebarri

Euskal Herriko Mus Txapelketa jokoan

Abian da Euskal Herriko Mus Federazioak antolatutako txapelketaren hamabigarren edizioa. Herrietako kanporaketa faseekin hasi da; azken urteon ildotik, Aginagan eta Usurbilen saio bana jokatu da hilaren 24an eta 31n hurrenez hurren.

Herri mailako kanporaketak:

- Urtarrilak 24, 22:00 Aginagako Atarialde Elkarteak.
 - Urtarrilak 31, 22:00 Usurbilgo Aitzaga Elkarteak.
- Oharra: izen ematea 21:30ean irekiko dute. Prezioa: bikoteko 20 euro.

Informazio gehiago:

ehmus.eus

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai; 2 logela, egongela, sukalde handia, 2 balkoi, dena kanpo aldera begira. Komuna duela gutxi berritua. 56m². Lokala 22m², garaje bezala eta sapai txiki bat trastelekutzat. Interesatuak 675 007 422.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukalde, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukalde, egongela, komuna, kalefakzioa. Igogailurik gabe. Dena berrituta. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Balkoia trastelekua. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Agnagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio berruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrik emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako lan-

gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakokudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesio-naltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrik emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrik emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Orduka lan egingo nuke usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. T689027247

Interna moduan lan bila nabil. esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitatea osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburuetarako, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz. Garbiketa edo pertsona helduak zaintzen, arratsaldetan edo gauean. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, garbiketan, orduka edo externa bezala. 633 148 710

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauean. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak



Zorionak Josu eta aitona! Muxu handi bat etxekoan partez

edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezua bat lasai 688637679 zenbakira, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsalde zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketa eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. Esperientziaduna. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketa lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat etxeko nahiz zaintza lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00-17:00 bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Tel. 602 069 147

Lanean berehala hasteko prest.

Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaleetan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Urtarriletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketan. 671277904

BESTELAKOAK

Isabelita Mandarinak Japoniarrak (txoriak) ditut salgai. T659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH Tean ikasten ari nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeo tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartean bazkide berriak sartzeko plaza libreak daude. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkarteko bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurrikoa da eta berri berria dago. 650 027 123.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitetzke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noau! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 23 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 24 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 25 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 26 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astelehena 27 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 28 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteazkena 29 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Urtarrilak 23- Otsailak 02

Osteguna 30 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 31 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 01 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 02 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda urtarrila

24 ostirala

- **Euskal Herriko Mus Txapelketako saioa Aginagan.** 22:00etan Aginagako Atarialde elkartearen. Izen-ematea 21:30etan zabalduko da.
- **"Sobrevivir" dokumentalaren proiektzioa.** 19:00etan Sutegin.

25 larunbata

- **Ate Irekien Eguna Udarregi Ikastolan.** 10:30ean Udarregiko eraikin berriko jangelan.
- **Kantu-jira.** 12:30ean Mikel Laboa plazan.
- **Pilota partidak eta Miriam Arrillaga Belokiri omenaldia Aginagan.** 18:00etan Aginagako Ariztitxo frontoian.

26 igandea

- **Irisasi BTT Hoztak Akabatzen.** 9:00etan Usurbilgo frontoian. Izen ematea kirolprobak.com atarian.

Kantuzaleak, plazara

U rte berriko lehen kantu-jira larunbatean (hilak 25) ospatuko du Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak. Eguerdiko 12:30ean finkatu du Mikel Laboa plazatik abiatzeko hitzordua.

Kantu-liburuxka hartuta bertaratzeko gonbita luzatzen dute. Gogoan izan, astelehenero biltzen dela Kantu Taldea ikastarorako, 18:00-19:00 artean, Agerialdeko musika gelan.



Larunbat honetan, eguerdiko 12:30ean, Mikel Laboa plazatik abiatuko dira.

"Sobrevivir", Txileko eztandari buruzko proiektzioa

Erasmus bekak ahalbideturiko egonaldian zela, ikasle talde batek, tartean Usurbilgo Maddi Egizabalek, zuzenean bizi izan zuen Txileko eztanda soziala. Haren inguruan grabatu duten dokumentala eskainiko dute ostiral honetan arratsaldeko 19:00etan Sutegin. Tadamun elkargune internazionalistak antolaturiko ekitaldian, Txileko egoeraren berri eman go dute.



Ostiral honetan, 19:00etan Sutegin. Tadamun elkarteak antolatu du proiektzioa.

Datozenak

Atxegaldeko jaien etorkizunaz, bilera irekia

Errelebo beharrea da Atxegaldeko Jai Batzordea. Hamarkadetako etenaldiaren ostean, festak auzoko plazara bueltan ekarri eta 13 bat urtez festak gogotik antolatzen aritu diren taldeko kide gehienek haien ibilbidea amaitutzat eman zuten azken edizioan.

Bilera, txosna kokatzen duten tokian

2020ko jaiak, hortaz, kolokan dira. Hori saihesteko, bolondresei, jaien antolakuntzan parte hartu edo laguntzeko prest egon daitezkeenei deia egiten diete. Aurreko urteetan udaberri partean hasi izan dira biltzen. Oraingoan ordea, egoera zein den ikusita, urteko lehen bilkura urtarrilera aurreratzea erabaki dute. Atxegaldeko festen antolakuntzan parte hartu nahi duten guztiei zuzenduriko bilera irekia, ostegunean, urtarrilaren 23an, arratsaldeko 19:00etan, festetako txosna kokatu ohi duten lekoean.



Antolaketa batzorde berri bat osatu beharko da aurtengo jaiak bideratu ahal izateko.

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

ARRANDEGIA

PELLO

ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIK!
650 31 31 91 USURBIL

ALDAMU

KONPONKETAK

KALE NAGUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

AGINAGAKO Herri Eskola

Eskola bizirik, Agiña bizirik!



• 2-12 urte bitartekoentzat euskarazko irakaskuntza eskaintza zabala doan: ingelesa 3 urtetik aurrera, musika, internet gela guztietan, heziketa bereziko irakasle espezializatuen zerbitzua...

• Jantoki zerbitzua, bertako ostatuan sukaldatua.

• Eskola-txikien artean koordinatutako proiektu konstruktibismoan oinarrituz.

• Eskola-txikien arteko elkarbizitza: irteerak, antzerkiak, kirola...

• Eskola orduraz kanpoko kirola.

• Goizeko gela (8:00-9:30)

Izena emateko epea: **urtarrilaren 27tik**
otsailaren 7ra

9:30etik-16:30tara



Usurbilgo Udala

baikara 
Gipuzkoako IGEn federazioa

AGINAGA
HERRI ESKOLA
Usurbil

AGINAGAKO HERRI IKASTETXEA

Erriberako Kalea 7

20170 AGINAGA

Tel. 943 372044
Faxa: 943 372044

012261aa@hezkuntza.net

Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizue:

- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.
- **Hezkuntza Integrala:** Konpetentzietan Oinarritutako Hezkuntza.
- **Hezkuntza eredu propioa:** Konfiantzaren Pedagogia egitasmoa garatzen dugu.
- **Ikastola Berritzailea:** eraldaketa didaktiko, metodologiko, eta teknologiko etengabea sustatzen dugu.
- **Ikastola Euskalduna:** euskaraz irakatsiz eta ikasiz, euskaraz biziz, euskaldun konprometituak hezten dihardugu.
- **Irakaskuntza Eleanitza:** ingelesa 4 urtetik aurrera eta frantsesa, hautazko gaia, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- **Herritarra:** Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildutako ikastola.
- **Ikastola Inklusiboa:** guztion ikastola bultzatzen dugu, aniztasuna, garapen-erritmo eta behar espezifikoak aintzat hartuz.
- **KiVa ikastola:** Eskola Jazarpenaren (bullying) aurkako programa finlandiarra indarrean 2017tik aurrera beste 56 ikastolekin batera.
- **Autobusa** auzo eta herrietara: Santuenea, Aginaga, Zubieta eta Lasarte.
- **Jangela:** bertan sukaldatutako herriko produktuak.
- **Zaintza zerbitzua:** 08:00etatik 09:00etara eta iraila eta ekainean 14:30 16:30era.
- **ZIRIMARA** aisialdi Proiektua eta eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza, xake eta antzerkia.
- **Beka sistema propioa:** kuoten %100 bonifikatua.

52 urteko esperientzia Usurbilen.

Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)

Urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra (biak barne)

HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6

LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12

DBH: 12 - 16



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea, USURBIL

www.udarregi.eus